

## Sustraiak galduz

**Azken urteetan zuhaitz handi ugari galdu ditu Donostiak. Errondon, Bulebarrean, Oletan... Azken hilabeteetan eta asteetan ere zuhaitz andana bota dute, eta beste zenbait botatzeko asmoa ere badago. Arbolak horrela galitzeak ingurugiroan eta pertsonengan badu eragina.**


Aitziber Iartza

**O**laeta kalean, Errondo pasealekuan; Bulebarrean, Urumea pasealekuan eta beste zenbait tokitan zuhaitzak bota zituztela ikusi genuen duela urte batzuk. Aurtan ere ez dira gutxi izan galdu-tako zuhaitzak. Urte hasieran Mandaseko Dukearen pasealekuan makina bat platanondo moztu zituzten Atotxako etxeak egiteko; Altzan ere otsailean bederatzai platanondo eder bota zituzten bidexka bat egiteko...

Donostian bi eremu bereizi daitezke. Bata, eraztun berdea da, hots, Donostia inguratzen duten zuhaitziak osatutako gunea. Honetan azken aldian hainbat zuhaitz moztu dituzte. Miramonen, esate-

rako, zuhaitz ugari bota dituzte; pinu batzuk, baina baita bertako hainbat zuhaitz zahar ere. Igaran, berriz, duela gutxi Iberdrolak ibai ondoko altzak moztu zituen. Altzadiak babestuta daude, eta gainera, ibaiertzak ere babestutako gune dira, baina, hala ere, moztu egin zituzten. Txillidaleku inguruan ere hamar haritza moztu nahi dituzte. Xabier Rubio Haritzalde elkarte-kideak kezka agertu digu, gertaera hauek direla eta. *"Naturgune berezi eta polit horiek apurtzen ari dira, eta babesten ez badira, galdu egingo dira. Zuhaitzi horietan, gainera, animalia asko bizi da, eta beraz, horien aurkako erasoa ere bada zuhaitzak mozte"*, adierazi digu Rubiok.

Bestetik, hiri barruko zuhaitzak daude,



Ezkerrean, Mandasko Duke-ko zuhaitzak moztuta. Goian, pasealekuaren garai bateko itxura.

eta haietako asko desagertu dira azken hilabeteetan. Egian eta Altzan aipatutako kasuez gain, beste hainbat ere izan dira. Ategorrietan hainbat platanondo moztu zituzten etxeak egiteko, Uliako igoeran duela bi aste ezki bat bota zuten, Kontxako pasealekuan bi tamarindo moztu berri dituzte, Frantzia pasealekuan ere etxeak eraikitze-ko zuhaitz pila moztu dituzte... Xabier Rubiok hiriko arbolen garrantziaz ohartarazi du. *"Zuhaitzek berebiziko garrantzia dute hiriko ekosisteman. Oxigenoa ematen dute, partikula kutsakorrak hartu egiten dituzte eta araztegi lana egiten dute, lasaigarriak dira..."*, azaldu digu Rubiok. Halaber, pertsonen bizitzan zuhaitzak garrantzitsuak direla nabarmendu du Rubiok.

## Kale kantoitik

### Beste batzuk botatzear

Jada botatako zuhaitzez gain, beste zenbait ere botako dituzte laster. Foru Aizundriak Tolosa hiribidean 50 ezki botatzeko asmoa du errepidean egin beharreko aldaketak direla medio. Honek zeresan handia eman du hiritarren artean.

Lehen aipatutako zuhaitz guztien artean batzuk udalak bota ditu eta beste batzuk, berriz, ekimen pribatuaren ondorioz eraitsi dituzte.



**Azken aldian zuhaitz asko bota edo moztu dituzte Donostian**